

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2020**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2020ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena; Kontu Orokorra osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuek (GFA), foru erakunde autonomoen kontuek (Uliazpi Fundazioa eta Kabia), haren merkataritzako foru sozietateen kontuek (IZFE, Bidegi eta Etorlur Gipuzkoako Lurra) eta foru fundazioek (Kiroldi, Sueskola Gipuzkoa, Adinberri, Ziur, Mubil eta Naturklima, Gipuzkoako aldaketa klimatikoa behatzeko fundazioa).

HKEEk **aldeko iritzia plazaratu du Gipuzkoako lurralde historikoaren gainean**, unean uneko salbuespenak azpimarratu dituela. Bada, txostenak kontularitzako hainbat doiketa jaso ditu, GFaren Diruzaintza Geldikina 16 milioi euroan handituko luketenak. Halaber, GFaren Egoera-balantzeak ez ditu jasotzen ez zaharren egoitzetarako 15 eraikinen lagapen doakoa, ez 3ren obra publikoko administrazioko emakidak ere. Konpromiso-kredituen egoerak ez ditu Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari egin beharreko transferentzien konpromisoak barne hartzen; eta Bidegiko Urteko Kontuek ez dute eman A-15 eta N-I errepideak erabiltzeagatik ordaintzen den kanon kontzeptuan erregistratutako ziurgabetasun baten berri. Gainera, ezin egiaztatu izan dira GFAko balantzeko ibilgetu material eta ukiezineko eta Etorlur Gipuzkoako Lurraren aktibo korronteko zenbait kontu-sail.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakutsitako **egoera finantzarioa** aztertu du eta azpimarratu du 2020ko ekitaldian, diru-bilketaren murrizketak uneko emaitza korrontean eragina izan duela eta horren ondorioz, ez dela behar hainbatekoa izan ekitaldiko kapital-eragiketak finantzatzeko, ekitaldi itxieran erabili ez den zorpetze-saldoa aintza hartuta, 241,7 milioi euro.

HKEEk, berebat, **aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunari dagozkion helburuak** betetzeari buruzko informazioa jaso du. 2020ko otsailaren 11ko Ministroen Kontseiluak erabaki zuen aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak egokitzea eta Estatuaren aurrekontuaren gastu ez-finantzarioaren muga ezarri zen, bai eta administrazio publikoentzat konputagarria den gastuen bariazioa ere. 2020ko martxotik aurrera, COVID-19tik eratorritako pandemiaren egoera dela eta,

Gobernuak ezohiko hainbat neurri hartu zituen osasun-larrialdiari aurre egiteko eta ekonomiaren eta gizartearen susperraldia bultzatzeko. Azkenik, 2020ko urriaren 6ko Ministroen Kontseiluak 2020an zerga-arauak etetea erabaki zuen. Horrekin guztiarekin, otsailean onartu ziren eta krisiaren eraginaren ondorioz zaharkituta geratu diren egonkortasun-helburuak eta jarraibidea eten egin dira.

Fiskalizatutako erakundeek zuzentasunez **bete dute** beren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen lege-araudia, eta **langileen arloan** eta **Administrazioko kontratazioan unean uneko ez-betetzeak** antzeman dira; hala nola, pertsonaleko atalean: GFAko langileak ordainsari jakin batzuetan PFEZtik salbustea, eta lan-kontratuko langile finkoak kontratatzea Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioan, birjarpen-tasarik egon gabe; halaber, **Administrazioko kontratazioan**: bost kontratu SPKLn aurreikusitako aurrerapenik gabe izapidetu dira; 3 kontratutan ez dira dagozkien prozedura irekiak erabili, ez eta prozedura ireki sinplifikatua beste 22 kontratutan; gainera, **Kabian, egoitza transferituen titular diren toki-erakundeek sinatutako 9 zerbitzu-kontratu, dagozkien kontratazio-espeditenteak abiarazi gabe gauzatzen ari dira**).